

**IRISBOND-era BISITA**
VISITA A IRISBOND

2024-01-12 Donostia-San Sebastián 12-01-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Ahaldun nagusi andrea, sailburua, herri agintari eta ordezkariok, IRISBOND enpresako arduradun eta kideok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko zuen etxera gonbidatzeagatik eta zuen lana lehen eskutik ezagutzeko aukera emateagatik. Plazerra da hemen egotea.

Politikak helburu argia du: herritarren bizi kalitatea hobetzen saiatzea. Hori da gure betebeharra.

Zeregin hori betetzeko ezinbestekoa dugu pausu egokiak ematea. Gizartearen errekursoak ahalik eta hoberen kudeatzen asmatzea.

Aitortzen dut: gaur ezagutu dugun adibidea baino garbiagorik aurkitzea zaila da. Pausu asko eta ondo eman behar izan dira Pauleren bizi kalitatea hobetzeko. Benetan, hunkituta gaude gaur ikusi dugunarekin. Zorionak eta eskerrrik asko prozesu honetan parte hartu duzuen guztiei.

Zorionak bereziki zuri, Paule. Bihotzez esaten dizut, erakutsi duzun kemen eta lanerako grina itzela izan da. Eredu bat zara. Pertsona askorentzako erreferentea.

En esta visita he confirmado nuestra misión compartida: tratar de mejorar la calidad de vida de las personas. Hoy conocemos un claro ejemplo: conjugando buenas decisiones, inversión y ambición por mejorar es posible hacer realidad este objetivo.

He confirmado la ilusión que atesora este proyecto. Más en concreto la ilusión y perseverancia que se refleja en una persona como Paule. Eres un ejemplo. Un espejo en el que se mirarán muchas personas.

La comunicación es un elemento fundamental de nuestra vida. Poder expresar algo tan sencillo como que tenemos sed, que no hemos entendido algo o, simplemente, decir lo mucho que nos importa una persona.

“Maite zaitut”. Dos palabras. Dos sencillas palabras que la gran mayoría de nosotras y nosotros podemos exteriorizar sin problema. Sin embargo, suponen un muro infranqueable para las personas que las sienten pero que no pueden expresarlas.

Hoy demostramos que es posible facilitar la comunicación y la vida de las personas.

Gehiengo zabalarentzat erraza da 'Maite zaitut' esatea. Ordea, bi hitz hauek gainditu ezinezko pareta dira sentitzen dituzten baina adierazi ezin dituzten pertsonentzat. Gaur erakusten dugu geroz eta pertsona gutxiago egongo direla zailtasun horrekin. Posiblea da komunikazioa eta pertsonen bizitza erraztea.

IRISBOND es una referencia en ese modelo que llamamos colaboración público-privada. Inversión pública y trabajo en equipo con una iniciativa emprendedora. Todo ello en beneficio de la ciudadanía. En euskera tenemos la palabra exacta para denominar esta práctica: auzolana.

Han sido 10 años de desarrollo de este modelo en esta empresa: ayudas públicas destinadas a la investigación industrial y al desarrollo experimental, a la atracción de talento o a la internacionalización.

Gracias a vuestro buen trabajo y a la colaboración los resultados son palpables. Resultados que aplicamos y ofrecemos también a través de Osakidetza. El servicio vasco de salud que, gracias a la inversión pública y al esfuerzo de nuestra sociedad, es capaz de aportar soluciones a dificultades reales de cada persona, de personas como Paule.

Eskerrik asko egiten duzuen lan paregabearengatik. Bidea batera eginez erakutsi dugu pertsonen bizitzak hobetzea posible dela. Bada hori baino gauza ederragorik?

Eskerrik asko Paule, eskerrik asko Irisbond, eskerrik asko denoi eta zorionak Irisbond-eko lan talde osoari!